Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1894

AGINDUA, 2010eko otsailaren 2koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Bilboko Ingeniarien Eskola Fundazioa»ren estatutuen eta haren patronatuko osaeraren aldaketa onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Bilboko Ingeniarien Eskola Fundazioa»k bere estatutuen eta Patronatuaren osaeraren aldaketa onartu eta aldaketa horiek inskribatzeko aurkeztu duen espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2007ko otsailaren 8an, Ernesto Cilleruelo jaunak «Bilboko Ingeniarien Eskola Fundazioa»ren izenean izenpetutako eskabidea sartu zen Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Erregistro Orokorrean, Fundazio horren estatutuen aldaketa eta Patronatuaren osaeran izandako aldaketa inskribatzeko, hain zuzen.

Eskabideari eransten zaizkionak:

– Estatutuen artikuluak eta Patronatuaren osaera aldatzeko erabakiak publiko egiteko eskritura publikoaren bi kopia eskuetsi eta kopia soil bat. Ricardo Álvarez Isasi jaunak 2007ko otsailaren 7an eman zuen eskritura hori, Fundazioaren izenean eta ordez, Bilboko José M.ª Arriola Arana notarioaren aurrean (74 protokolo zenbakia). Ondorengo agiriak gehitu zaizkio eskritura publiko horri:

– Bilbon egindako ziurtagiria, 2007ko urtarrilaren 31n Fundazioaren Patronatuak egin zuen bileraren aktari buruzkoa; Fundazioaren Patronatuko idazkari Ricardo Álvarez Isasi jaunak egin zuen ziurtagiri hori 2007ko urtarrilaren 31n, Fundazioko lehendakari Luis Herrando Prat de la Riba jaunaren oniritziaz, eta notario aurrean egiaztatutako sinadurak eta guzti. Bilera hartan erabaki zen Fundazioaren estatutuetako 3., 8., 9., 13., 19., 25., 27., 32., 34., 36., 40., 46. eta 47. artikulua aldatzea eta lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak ezabatzea.

– Bilbon egindako ziurtagiria, 2007ko urtarrilaren 31n Fundazioaren Patronatuak egin zuen bileraren aktari buruzkoa; Fundazioaren Patronatuko idazkari Ricardo Álvarez Isasi jaunak egin zuen ziurtagiri hori 2007ko urtarrilaren 31n, Fundazioko lehendakari Luis Herrando Prat de la Riba jaunaren oniritziaz,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

1894

ORDEN de 2 de febrero de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueba e inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la modificación de estatutos y variación de patronato de la «Fundación Escuela de Ingenieros de Bilbao».

Visto el expediente al que ha dado lugar la solicitud formulada por la «Fundación Escuela de Ingenieros de Bilbao», de aprobación e inscripción de modificación de Estatutos y variación de Patronato de la Fundación, atendiendo a los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– Con fecha 8 de febrero de 2007, tiene entrada en el Registro General del Departamento de Justicia y Administración Pública solicitud suscrita por D. Ernesto Cilleruelo, en nombre de la «Fundación Escuela de Ingenieros de Bilbao», de inscripción de modificación estatutaria y variación de Patronato de la Fundación.

A la solicitud se adjunta:

– Doble copia autorizada y una copia simple de la Escritura Pública de elevación a público de acuerdos sociales de modificación de artículos estatutarios y de variación de Patronato, otorgada el 7 de febrero de 2007 por D. Ricardo Álvarez Isasi, en nombre y representación de la Fundación, ante el Notario de Bilbao, D. José M.ª Arriola Arana, n.º 74 de su protocolo. La citada Escritura incorpora:

– Certificación expedida en Bilbao, el 31 de enero de 2007, por el Secretario del Patronato D. Ricardo Álvarez Isasi, con el visto bueno de su Presidente, D. Luis Herrando Prat de la Riba, firmas legitimadas por el Notario en el cuerpo de la Escritura, del acta de la reunión del Patronato celebrada el 31 de enero de 2007, y en la que se adoptó, entre otros, el acuerdo de modificar los artículos 3, 8, 9, 13, 19, 25, 27, 32, 34, 36, 40, 46 y 47 de los Estatutos fundacionales, con supresión de las Disposiciones Adicionales Primera y Segunda.

– Certificación expedida en Bilbao, el 31 de enero de 2007, por el Secretario del Patronato D. Ricardo Álvarez Isasi, con el visto bueno de su Presidente, D. Luis Herrando Prat de la Riba, firmas legitimadas por el Notario en el cuerpo de la Escritura, del acta de la reunión del Patronato celebrada el 31 de enero

eta notario aurrean egiaztatutako sinadurak eta guzti. Bilera hartan honako erabaki hauek hartu ziren, besteak beste:

• Patronatuko kideak kargutik kendu eta izendatzea.

• Patronatuko karguak izendatzea.

• Fundazioko zuzendaria izendatzea eta bere egitekoak zehaztea.

• Hartzen diren erabakiak publiko egiteko ahalmena duen pertsona izendatzea.

– Patronatuko kide izendatutako guztiek izendapena eta, hala badagokio, Fundazioan eman zaien kargua onartzea, notario aurrean egiaztatutako sinadurak eta guzti.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, erabaki-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren estatutu-aldaketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 40. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Estatutuen egokitzapena onartzeko eta egokitzapen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espedienteari funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko lehengo Erregelamendua onartu zuen urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 62. artikuluan eskatutakoak (dekretu hori aplikagarria da, ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren Xedapen Iragankorrean ezarritakoaren arabera).

Hirugarrena.– Bete egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 10., 11., 12. eta 40. artikuluetan agindutakoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko lehengo Erregelamendua onartu zuen urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 40. artikuluan agindutakoa. Aipatutako artikuluak fundazioetako

de 2007, y en la que se adoptó, entre otros, los siguientes acuerdos:

• Cese y nombramiento de miembros del Patronato.

• Nombramiento de cargos del Patronato.

• Nombramiento del Director de la Fundación y atribuciones.

• Designación de la persona facultada para la elevación a público de los acuerdos que se adopten.

– Aceptación de su nombramiento como miembro del Patronato y, en su caso, de su respectivo cargo en la Fundación, por todos y cada uno de los nuevos miembros designados, junto a las correspondientes legitimaciones notariales de cada firma.

Segundo.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos del Registro de Fundaciones del País Vasco, que a su vista han elevado Propuesta de Resolución, atendiendo a los siguientes:

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de modificación estatutaria, en virtud del artículo 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, el artículo 3 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– Al presente expediente de aprobación de modificación estatutaria y ulterior inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 62 del antiguo Reglamento de organización y funcionamiento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 404/1994, de 18 de octubre, y que resulta de aplicación en virtud de lo establecido en la Disposición Transitoria del Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Tercero.– Se cumple lo dispuesto en los artículos 10, 11, 12 y 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como el artículo 40 del antiguo Reglamento de organización y funcionamiento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que establecen los requisitos procedimentales para la inscripción de los

gobernu-organoko kideen kargu izendapena inskribatzeko prozeduraren betebeharrak ezartzen ditu.

Laugarrena.– Fundazioen estatutuetako aldaketak eta Patronatuaren aldaketak inskribatzeko oro har eskatutako baldintzez gain, gai horretaz Fundazioko Estatutuetan berariaz jasotzen diren arauak betetzen dira.

Lege eta arau hauek ikusi dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko lehengo Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 404/1994 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua, eta orokorrean aplikatzekoak diren gainerako arauak. Ondorioz,

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak

EBATZI DU:

Lehenengoa.– «Bilboko Ingeniarien Eskola Fundazioa»ren estatutuetako 3., 8., 9., 13., 19., 25., 27., 32., 34., 36., 40., 46. eta 47. artikuluen aldaketa onartzea eta lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak ezabatzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutu-aldaketa hori agindu honen egunean inskribatzeko agindua ematea, Fundazioaren Patronatuak 2007ko urtarrilaren 31n egin zuen bileraren aktari buruzko ziurtagirian ezarritakoarekin bat. Patronatuko idazkari Ricardo Álvarez Isasi jaunak Bilbon 2007ko urtarrilaren 31n egin zuen ziurtagiria, Patronatuko lehendakari Luis Herrando Prat de la Riba jaunaren oniritziarekin. Bilboko José M.ª Arriola Arana notarioaren aurrean (74. protokolo-zk.), 2007ko otsailaren 7an emandako eskritura publikoan sartuta dago ziurtagiri hori.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan, «Bilboko Ingeniarien Eskola Fundazioa»ri irekitako orrian, honako hauek inskribatzea: Fundazioko Patronatuko kide guztien kargugabetzea, kide berrien izendapena eta beteko dituzten karguak. Hala egin behar da, Fundazioaren Patronatuak 2007ko urtarrilaren 31n egin zuen bileraren aktari buruzko ziurtagirian ezarritakoarekin bat. Patronatuko idazkari Ricardo Álvarez Isasi jaunak Bilbon 2007ko urtarrilaren 31n egin zuen ziurtagiria, Patronatuko lehendakari Luis Herrando Prat de la Riba jaunaren oniritziarekin. 2007ko otsailaren 7an Ricardo Álvarez Isasi jaunak Bilboko José M.ª Arriola Arana notarioaren aurrean (74 protokolo zenbakia), Fundazioaren izenean eta ordez, eman zuen eskritura publikoan sartuta dago ziurtagiri hori.

Inskripzio horren arabera, honela dago osatuta Patronatua:

Patronatuko kide berezkoak:

nombramientos de los órganos de gobierno de las Fundaciones.

Cuarto.– Además de los requisitos exigidos con carácter general para la inscripción de modificación de estatutos y variación de Patronato, se cumplen las reglas que, con carácter particular, recogen los Estatutos de la Fundación al respecto.

Vistas la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 404/1994, de 18 de octubre, por el que se aprueba el antiguo Reglamento de organización y funcionamiento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el actual Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, y demás normativa de general y pertinente aplicación,

La Consejera de Justicia y Administración Pública

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación de los artículos 3, 8, 9, 13, 19, 25, 27, 32, 34, 36, 40, 46 y 47 de los Estatutos de la «Fundación Escuela de Ingenieros de Bilbao», con supresión de sus Disposiciones Adicionales Primera y Segunda.

Segundo.– Ordenar la inscripción de dicha modificación estatutaria de la Fundación, con la fecha de la presente Orden, en virtud de la Certificación expedida en Bilbao, el 31 de enero de 2007, por el Secretario del Patronato D. Ricardo Álvarez Isasi, con el visto bueno de su Presidente, D. Luis Herrando Prat de la Riba, del acta de la reunión del Patronato, celebrada el 31 de enero de 2007, y que forma parte de la Escritura Pública, otorgada el 7 de febrero de 2007 ante el Notario de Bilbao D. José M.ª Arriola Arana, n.º 74 de su protocolo.

Tercero.– Inscribir en el Registro de Fundaciones del País Vasco, en la hoja abierta a la «Fundación Escuela de Ingenieros de Bilbao» y en virtud de la Certificación expedida en Bilbao, el 31 de enero de 2007, por el Secretario del Patronato D. Ricardo Álvarez Isasi, con el visto bueno de su Presidente, D. Luis Herrando Prat de la Riba, del acta de la reunión del Patronato celebrada el 31 de enero de 2007, y que forma parte de la Escritura Pública otorgada el 7 de febrero de 2007 por D. Ricardo Álvarez Isasi, en nombre y representación de la Fundación, ante el Notario de Bilbao D. José M.ª Arriola Arana, n.º 74 de su protocolo, el cese de todos los miembros del Patronato de la Fundación, el nombramiento de sus nuevos miembros y la designación de sus cargos.

De esta inscripción el Patronato queda configurado como sigue:

Como Patronos Natos:

– Enrique Amezua San Martín jauna, Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko zuzendaria den aldetik.

– Agustín Iturriaga Elorza jauna, Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkarteko lehendakaria den aldetik.

Patronu hautetsiak:

– Luis Herrando Prat de la Riba jauna.

– Ricardo Álvarez Isasi jauna.

– Juan Andrés Legarreta Fernández jauna.

– Ernesto Cilleruelo Carrasco jauna (Fundazioko zuzendari ere izendatuta dago).

– Javier Barrondo Apodaca jauna.

– Josu Bergara Etxebarria jauna.

– Luis de León Molina jauna.

– Baltasar Errazti Navarro jauna.

– José Mendia Urkiola jauna

– Javier Muniozguren Colindres jauna.

– Nicolás Gaminde Alix jauna

– Rafael de Icaza Zabalburu jauna.

– Jorge Unda Malcorra jauna.

– Fernando Querejeta San Sebastián jauna.

Patronatuko lehendakaria, lehendakariordea, diruzaina eta idazkaria hauek izango dira:

Lehendakaria: Luis Herrando Prat de la Riba jauna.

Lehendakariordea: Agustín Iturriaga Elorza jauna.

Diruzaina: Juan Andrés Legarreta Fernández jauna.

Idazkaria: Ricardo Álvarez Isasi jauna.

Patrono karguak lau urterako aukeratzen dira eta iraupen bereko beste aldi batzuetarako aukeratu ahalko dira, inolako mugarik gabe.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 2a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

– D. Enrique Amezua San Martín, en su condición de Director de la Escuela Técnica Superior de Ingeniería de Bilbao.

– D. Agustín Iturriaga Elorza, en su condición de Presidente de la Asociación de Ingenieros Industriales de Bizkaia.

Como Patronos Electivos:

– D. Luis Herrando Prat de la Riba.

– D. Ricardo Álvarez Isasi.

– D. Juan Andrés Legarreta Fernández.

– D. Ernesto Cilleruelo Carrasco, nombrado asimismo Director de la Fundación.

– D. Javier Barrondo Apodaca.

– D. Josu Bergara Etxebarria.

– D. Luis de León Molina.

– D. Baltasar Errazti Navarro.

– D. José Mendia Urquiola.

– D. Javier Muniozguren Colindres.

– D. Nicolás Gaminde Alix.

– D. Rafael de Icaza Zabalburu.

– D. Jorge Unda Malcorra.

– D. Fernando Querejeta San Sebastián.

Los cargos de Presidente, Vicepresidente, Tesorero y Secretario del Patronato se distribuyen de la siguiente forma:

Presidente: D. Luis Herrando Prat de la Riba.

Vicepresidente: D. Agustín Iturriaga Elorza.

Tesorero: D. Juan Andrés Legarreta Fernández.

Secretario: D. Ricardo Álvarez Isasi.

El cargo de Patrono tendrá una duración de cuatro años, pudiendo ser reelegido por períodos iguales, sin limitación alguna.

Cuarto.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de febrero de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.